

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

938

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira kimika-sektoreko zenbait instalazioen ingurumen-baimen integratuen berrikuspen-espedienteak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu edo lekualdatzeko, bai eta horiek funtsean aldatzeko ere.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihesteko baldintzak ezartzea, eta, hori ezinezkoa bada, poluzioa prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea eta poluzio hori gutxitu eta kontrolatzea behintzat, Ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua agintzen du ofizioz berrikus daitezela ingurumen-baimen integratuak, instalazio baten jarduera nagusia aintzat hartuta teknika eskuragarri onenei (TEO) buruzko ondorioak argitaratu zirenez. 2022ko abenduaren 12an, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2022ko abenduaren 6ko 2022/2427 Exekuzio Erabakia (EB), zeinaren bidez ezartzen baitira sektore kimikoan hondakin-gasak tratatzeko eta kudeatzeko sistema komunitararako teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren esparruan.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartutako Industriako Isurpenen Erregelamenduaren eta Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko zutailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 16. eta 15. artikuluek arautzen dute berrikusteko prozedura, eta gutxienez hogeit eguneko jendaurreko informazio-aldia ezartzen dute horren barruan.

Horregatik guztiagatik, jendaurrean jarri behar dira eranskinean zehaztutako espedienteak, hogeit egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak edo oharra aurkez daitezten. Espediente horiek ikusgai egongo dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 19a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.

ERANSKINA

SEKTORE KIMIKOKO INSTALAZIOAK, ZEINEN BERRIKUSPEN-ESPEDIENTEAK
JENDAURREAN JARTZEN BAITIRA

Espedientea	Ingurumen-baimen integratuaren titularra	Herria/Udalerrria
AAI00077	Electroquímica de Hernani, S.A.	Hernani
AAI00094	Vibrantz Performance Pigments Spain, S.L.	Laudio
AAI00129	Bilbaina de Alquitranes, S.A.	Barakaldo
AAI00173	General Química, S.A.	Lantarón
AAI00322	Biodiesel Bilbao, S.L.	Zierbena